

BERTAKO ZUHAITZAK Landaketek gora

GIDA 2016

Osatua, eguneratua eta euskalduna

Komertzioak, lantegiak, elkarteak eta erakundeak

Interneten: www.plaentzia.eus/gida





PIL-PILEAN

EUSKARA ELKARTEA

1996 - 2016

943 75 13 04

Errabal 15, 1 · 27 P.K.

www.plaentxia.eus/komunitatea/Pil-pilean

koordinazioa@pilpilean.com

KOMUNIKABIDEAK

Pil-pilean hilabetekaria

aldizkaria@pilpilean.com

Plaentxia.eus

plaentxia@pilpilean.com

Publizitatea

publizitatea@pilpilean.com



AISIALDIA

Kukumixo

aisialdi-taldea

**Ganbarape
gaztetxokoa**

euskara@pilpilean.com



KULTURGINTZA

Udate gaba, Gaztañerre

kulturala, Olentzero eta

Mari Domingi...

koordinazioa@pilpilean.com

EUSKALGINTZA

Berbalaguna

berbalaguna@pilpilean.com

Auzoko

auzoko@pilpilean.com



Beheko parkea

Minimalista dela esan dezakegu: txirrista bat eta itsasontzi moduko bat jolasteko, Plaza Zaharretik kendutako jarleku bi, lehenagotik bertan zeudenak eta platane-roak bueltan. Ez dauka besterik beheko parkeak. Ze pertsonarik ere ez du izaten, umea eta biok tarteka eta auzoko nagusi batzuk oso noizbehinka. Baloiarekin joaten garenean... kontuz! Zuzen eta gogor botaz gero, erreka jausi daiteke –erreka bazterreko zelaira joan bazaigu ere, oraingo urak ez digu baloirik eraman–; oker eta gogor botaz gero, berriz, errepera joan daiteke –horra bai, horra behin baino gehiagotan egin digu ospa–.

Futboleko, bote-boteka, txirrista kanasta modura erabilia... ibiltzen gara. Baloiarekin aspertzean, lurlean dauden makilatxoak erreka bota eta ea noraino iristen diren begira ere jarduten dugu, erreka ur gutxiagorekin doanean, berriz, haren bazterraino jaitsi eta harriak botatzen ditugu, zeinek urrutiren, ea beste alderaino iristen garen! Bat-batean beheko parkea espioien entrenaleku bilakatzeko da: jarlekuetara igo, super heroien pareko saltoak eginez batetik bestera joan, lurlean borroka egin... Txutxeria saltokirik ez dago bertan, baina hara! Isil-isilik, han azaltzen da eguneroko paseotik bueltan datorren auzokidea, txikleak poltsikoan, haiek guri emateko beti eskuzabal. Eta



Ubane Madera

“Bat-batean beheko parkea espioien entrenaleku bilakatzeko da: jarlekuetara igo, super heroien pareko saltoak eginez batetik bestera joan, lurlean borroka egin...”



P.G.

tabernarik ere ez du beheko parkeak. Baina nahikoa korrika egin eta jolastu ondoren egarria asetzeko adina eta sobera den iturria badu.

Herriaren sarrerako –periferian askorendako– parke horretan ordu batzuk sartu ohi ditugu umeak eta biok. Ez asko, egia esan. Gehienetan, errazagoa delako ume gehiago, ziburu-zaburu gehiago/hobeak, inguruan tabernaren bat edo jende gehiago ibiltzen den tokietara joatea denbora pasatzera. Batez ere, errazagoa helduarendako, umea bera bakarrik entretenitzea errazagoa delako modu horretan. Helduekin gertatzen den antzera, ezta? Tokyora joatea gustukoago dugu Debako hondartzara joatea baino. Jakina. Normala da entretenimendu oparoa eskaintzen duen denbora-pasa nahiago izatea betiko hori baino. Guztiondako. Eta ahal den guztietan aprobetxatzen ditugu halakoak, gainera. Ondo eginda. Baina oparotasuna ez da egoten askotan gure esku. Bai, ordea, betiko horri etekina atera eta probetxuz erabiltzea. Eta ondoan dugun horri kalitatezko denbora eskaintzea. Umea izan edo heldua izan. Beheko parkea edo Deba mundialak izan daitezke. Egunerokoa ere bai. Beti ez da horren erraza hori lortzea, baina ahalegintzea, behintzat, gure esku dago.

Euskalzaletasunaren alde:



PASCUAL CHURRUGA, r.o.



SORALUCE

1

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa Telefonoa: 943 75 13 04 e-maila: aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Egoitz Unamuno eta Gaizka Azkarate Zuzentzailea: Leire Ginea Publizitatea: Gaizka Azkarate Diseinua: Iñigo Uribetxebarria Maketazioa: Oier Larreategi Inprimategia: Gertu Koop. Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale I.Z.K.a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA



SORALUZEKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gutunak

Maria Elena Plazaola
Sabin Mendizabal
Jon Mendizabal

Eskerrik asko Mendi-aitxa

Mendi-aitxan heriotzak lagatako hutsunia, sekula berdindu ezingo dogun zula da gure barrenetan. Pertsona danok bezela, bazeuzkan bere argi-ilunak, baina zeozertan ondo moldatzen bazan, pertsonen arteko harremanetarako zan paregabia. Hori da, hain zuzen, lerro honek idaztera bultzatu gaitxuan arrazoia. Otsailaren 14an, hirurok bakarrik geratu ginan bat-batian, bakoitza leku baten, elkarrekin egon ezinik. Benetan bihotzez eskertzen dotsuegu momentu zail horretan etxian bertan, espetxian zein Senegalen, zailtasunak zailtasun, gure minak elkarbanatu eta arintzen saiatu zintaten senide eta lagun daneri. Era berrian, bihotzez eskertzen dogu, baita, gugana gerturatu eta zuen berotasuna emon doskuzuen dan-danon eta bakoitzan ahalegina.

Ereiten dana jasotzen dala diño erdal esaldixak eta argi ikusi eta sentitu dogu hola dala. Eskerrik asko Mendi-aitxa.

(Momentu honetan gure dolua idatziz plazaratzia gogoko ez izan arren, gure eskerri-rona helarazi nahiko genduken senide, lagun, eragile eta abarren zerrenda amai-gabia danez, herri-aldizkarixa iruditxu jaku bide zuzen eta egokixena.)

Korner Morea Oso pozik gare

Martxo morea bukatzen ari da eta errepassua egiten hasitxa potentia izan dala iruditzen jaku. Korner Moretik herrixangana heldu nahi izan dogu, eta herritxarren harrera eta erantzunakin oso pozik gare. Horregaitxik, eskerrak emotia nahi dotsuegu ekintzetan parte hartu dozuenori eta guregana moduren baten gerturatu zaretanori. 2016 moriak in aurrera jarraitxuko dogu eta oin arte egon zarienok gurekin jarraitzia espero dogu, eta jende berrixandako besuak zabalik dakaguz. Gora Soraluzeke borroka feminista!

Lan-poltsa deialdia

Mesedetako egoitzak ordezkapenak egiteko lan-poltsa osatu nahi du.

Lanpostuak: erizaintzako laguntzailea, erizaina, psikologoa, gizarte langilea, jarduera-begiralea eta garbiketako langilea.

Eskaera aurkezteko azken eguna: maiatzaren 5a.

Curriculum Vitaea bidaltzeko erabili: e-posta (resmerced@gmail.com) edo posta arrunta (Mesedetako Andre Mariaren Egoitza, Atxuri kalea z/g, 20590 Soraluze)

Zuzenketa

Otsaileko alean, Maider Gabilondoren elkarrizketan aipatzen zen Nafarroako Unicefek Nafarroan bertan "desnutrizio-egoeran" dauden umeei laguntzeko lan egiten duela baina adierazpen zuzena honako hau da: Nafarroan "pobrezia-egoeran" dauden umeei laguntzen diela.

Bittartetik



Leire
Ginea

Munduari begiratzeko modu bat

Aurrekoan, piraguaz beterik ikusi genuen ibaia, eta... esan beharrik ez dago: ekimenak sekulako jakinmina sortu du. Jendea ikusi dugu barandillatik ibaira begira; izan ere, barandillatik begiratzen diogu gure mundu honi, oinak ibaian sartuta munduari begiratzen aspaldi ahaztu genuenok. Horren adierazgarri dira *plaentxia*. eusek jasotako herritar honen hitzak: "piraguei esker Soraluzean daukagun altxorra deskubritu dugu berriz".

Hain zuzen ere, altxor horren berri izateko egitasmo bat jarri dugu martxan Alkarrekineko *Mendiak eta Ibaiak lan-taldean*. Egitasmoaren helburu nagusia da ibaiaren inguruko ondarea jasotzea: ibaiak zer garrantzia izan duen plazentziatarren bizimoduan, zertarako erabili izan den eta nola... Hori guztia jasotzea da gure asmoa, sasoi batean ibaiarekiko lotura estua izan duen jendearen ahotik. Horretarako, hainbat herritarren testigantzak eta bizipenak bildu nahi ditugu, argazkiak, irudiak... Eta jasotakoarekin ikus-entzunezko labor bat egin. Lan hori egiteko funtsezkoa izango da herritarren laguntza.

Beraz, ahalegin xumea egin nahi dugu hain gertu hain baina hain urrun dugun ingurune natural bati beste begi batzuekin begiratzen hasteko, ibaia ikusteko eta sasoi bateko begirada berreskuratzeke. Ibaia-ri bizkarra emanda bizi beharrean, ibai-inguruak bizigarri egin nahi genituzke, gure munduari piragatik begiratzen ikasteko berriz.

JUAN MARI
ARRAINDEGIA

Arrain freskoa
Etxera eramateko
zerbitzua

Enkarguak hartzen
ditugu

943 75 24 40
MERKATU PLAZA





Etxabe
Harategia

- Etxera eramaten da
- Enkarguak hartzen dira
- Soraluzeke baserrietako produktuak
- Etxeko tripaki eta txistorrak

Etxaburueta 5
Telefonoa: 943 75 23 75

“Herriko adinekoen bizikalitatea hobetu nahi dugu”

Juan Fernandez (Soraluze, 1990)
Alkarri elkartearen koordinatzailea



Aitziber Berasaluze, Iosu Arriola, Juan Fernandez, Goyi Vicente eta Nora Hadi, elkarteak kideak.

Alkarri elkarteak eratu berri dute hainbat herritarren artean. “Zahartzaro aktiboa sustatzea eta mendekotasuna duten pertsonen gizarteratzen laguntzea” helburu duen proiektu sozial parte hartzailea da eta apirilean hasiko dira lanean.

Nondik dator Alkarri sortzeko ideia?

Idea Alkarrekin prozesuaren barruan sortu zen, zahartzaro aktiboaren taldean. Hasieran handik bideratzea zen asmoa baina, azkenean, bide propioa egitea erabaki dugu. Elkarrekin bost pertsonaz osatutako junta bat izango du eta koordinazio lanak egingo dituen liberatua. Horrekin batera, boluntario moduan jardun nahi duten herritarrek ere izango dute parte hartzeko aukera.

“Soraluzetarren ia laurdenak 65 urte baino gehiago ditu”

Ze ekarpen egin nahi duzue?

Hasieran egoitza eta jubilatuen elkarrekin batera umeen eta nagusien arteko zubilana egitea geneukan buruan. Baina, gerora, konturatu gara herrian jende nagusi asko bizi dela bakarrik etagure asmoa da pertsona horiei gizarteratzen laguntzeko sarea osatzea, boluntarioekin. Gure asmoa da herriko elkarrekin batera lan egitea, adinekoen bizikalitatea hobetzeko.

Herrian dagoen adineko kopuruaren inguruko datuak baduzue?

Matia fundazioak txosten bat egin zuen orain dela bi urte eta han jasotako datuen arabera, soraluzetarren ia laurdenak, %22ak, 882 pertsonak, 65 urtetik gora dituzte, eta horietatik 271k 80 urte baino gehiago dauzka. Gainera, aurreikuspenek diote etorkizunean hemengo biztanlegoa are gehiago zahartuko dela.

“Gure asmoa da herriko elkarrekin batera lan egitea”

Beste nonbaiten garatutako esperientziaren bat erabili duzue eredu moduan?

Ahalegindu gara beste esperientzia batzuetatik ikasten. Bartzelonan La Caixa Fundaziokoak ospitaletan lan egin dute familiei laguntzen, Durangon batxilergoko ikasleekin bisitak antolatzen dituzte egoitzara... Europa aldean, Finlandian adibidez, prentsonarengan zentratutako asistentzia lantze dihardute, pertsonen bere bizimoduaren gaineko kontuetan erabakitzeak aukera emanez. Hemen Matia fundazioak dihardu bide hori lantzen.

Aurten zein ekimen lantzeko asmoa duzue?

Aurten bost proiektu landu nahi ditugu: “Pirata botila” egitasmoa, nagusien eta gaztetxoaren arteko harremana bideratzea helburu izango duena; “Irabazten” proiektua, Jaurlearitzak bultzatutako he-

rri lagunkoien zerrendan sartzeko helburuarekin; “Gurpilen” proiektu pilotua, adinekoak herrira jeisteko helburua duena; egoitzan eta jubilatuetan sare sozialen erabilera bultzatzeko egitasmoa, gero eta azkarrago doan mundo honekin konektatuta mantentzeko; eta “pintxo pote residentziala”.

Zer da “pintxo pote residentziala”?

Bizikaleko hostalariak hilean behin egoitzara joan eta pintxo bat egitea asmoa eta urtearen amaieran pintxoak bozkatu eta jai bat egitea elkarrekin. Horixe izango da apirilean martxan jarriko dugun lehenengo proiektua, “Pirata botila” egitasmoarekin batera. Bigarren honetan herriko ikastetxeek, egoitzak eta jubilatuen elkarrekin parte hartuko dute.

“Ahaleginduko gara proiektu bakoitzerako boluntarioak bilatzen”

Zela bilatuko dituzue boluntarioak?

Ahaleginduko gara proiektu bakoitzerako boluntarioak bilatzen. Poliki-poliki joan nahi dugu jendea batzen. Berezi ki zaindu nahi dugu boluntarioen lana, denbora luzean eta gustura egon daitezzen. Apirilean aurkeztuko ditugu egitasmoak eta Alkarri.org webgunea ere bai. Hortik aurrera, jendeari parte hartzeko gonbitea egingo diogu.

Jatearen plazera, bertatik bertara

ogibitartekoak eguneko menua
asteburuko kartak razioak

Erreserbak: 943 75 20 16


Kontulan

aholkularitza
ABOKATUAK

Errenta aitorenak • Administrazio lanak • Trafikoko burokrazia
Lan-arloko aholkularitza • Enpresen kontuitzio/disoluzioak • Kontabilitatea

Santa Ana 13 - I. ezk. 20590 Soraluze • Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

Herriko gidarik osatuena, kalean



Jesus Juan Benito (Bizikale), Gaizka Azkarate (Pil-pilean) eta Iker Aldazabal (Udala).

Gida Pil-pileanen, Udalaren eta Bizikale merkataritza-elkartearen arteko elkarlanerekin egin da eta Debagoieneko Goiena komunikazio-taldearen aholkularitzarekin garatu da. Helburua da herritarrek modu errazean kontsultatu ahal izango duten gida komertziala eskaintzea, iragarkiak ere badakartza eta interneten eguneratzeaz arduratuko gara. Lehenago ere, 2007an, udalak herriko komertzio eta lantegien gida argitaratu zuen baina ordutik eguneratu barik zegoen.

Hiru euskarritan

Gida hiru euskarritan kontsultatu ahal izango da: paperean, sarean eta, aurki, mugikorreko aplikazioan ere bai. Paperezko edizioa datorren astean banatuko da herriko etxe, elkarte eta lantegi guztietara. Edizio digitala, berriz, erabilgarri dago plaentxia.eus/gida webgunean eta, laster, udalaren webgunean ere izango da.

Hiru hilabeteko lanaren ostean, prest dago Soraluzeko komertzio, elkarte eta lantegien berri jasotzen duen gida. Guztira 182 entitateen inguruko informazioa dakar: telefonoak, e-posta helbideak, zerbitzuen inguruko informazioa, datu jakingarriak... Horrekin batera, bestelako kontaktu interesgarrien zerrenda ere jasotzen du: udal-zerbitzuak, mankomunitatea, garbigunea...

FotoNotizia



Ibaian piraguak ikusteak ikusmin handia sortu du

Udaleko kirol-sailak antolatutako piraguismo ikastaroa dela-eta, joan zen astean ibaia piraguaz bete zen (piraguak Bergarako Piraguismo elkarteak ekarri ditu). Ekimenak sekulako ikusmina sortu zuen herritarren artean: "piraguei esker herrian daukagun altorra deskubritu dugu berriz", zioen herritar batek. Kirol-teknikariak aurreratu duenez, maiatzean Alkarrekinen bitartez antolatuko duten kirol-egunean ekarriko dituzte berriz.

Preso ohiek deia, Bilboko manifestaziora joateko

Preso egondako hainbat herritarrek apirilaren 17an *Aministiaren norabidean preso eta iheslariak etxera* lemapean Bilbon egingo den manifestazioan parte hartzeko deia egin dute. Horrekin batera, orain bi aste Usurbilen ehunka preso ohik kaleratu zuten *Abian da bidea* manifestuarekin bat egiten dutela adierazi dute. Manifestu horren bitartez, presoan eta iheslarien kolektiboek legedia baliatzeko hartu dituzten erabakiei babesa adierazi nahi izan diete, eta azpimarratu dute ez dutela onartuko "inoren fiskalizaziorik".



Pozoinen neurri gabeko erabilera salatu du EH Bilduk

EH Bilduk Gabolats, Ezozibidea eta Santa Ana kaleetako ezpondak garbitzeko pozoia neurririk barik erabili izana egotzi dio Udalari, espezie inbaditzaileak ezabatzearekin batera, gunehorietako belarra desagerarazi eta bertako lur apurra agerian laga eta errepidera harriak eta lurra jausi direla azalduz. EH Bilduk jakinarazi du EAJ eta PSE-EEK osatutako gobernu-taldea ohartarazi zuela pozoina neurri gabe erabiltzeak zekartzan ondorioez eta etorkizunean ingurugiro eta osasunarendako mehatxurik ekarriko ez duten pozoinak erabiltzeko eskatu dio.





**Kalebarreneko
kale kantoian**
Tel. 943 75 17 89

**Eguneko menua, razioak,
plater konbinatuak,
hanburgesak, ogitartekoak,
gosaria, pizzak...**

**Enkarguak
egiten dira**

Hortz klinika
Javier Alonso
 Mediku Estomatologoa
 K.Z. 20.000.434
Katia Gustino
 Odontologoa
 K.Z. 48.001.541
 Errabal 1 - Tel.: 943 75 16 13

27 urteko esperientzia
 Minik gabeko anestesia,
 odontologia orokorra, protesi finkoa
 eta mugikorra, odontopediatria,
 ortodontzia, inplanteak, estetika...



Herri-kontsulta prestatzeko lehen bilera

Martxoaren 12an zubian egin zuten ekitaldi jendetsuan jakinarazi zuten herriko Gure esku dagok Soraluzen kontsulta prestatzeko lanari ekingo diola. Apirilaren 13an egingo dute galdeketa noiz egin eta zer galdetu erabakitzeko lehenengo batzarra, 18:00etan Etxaburuetako bilera-gelan. Batzarra irekia izango da eta Debagoieneko ordezkari batek parte hartuko du, bertan egiten dihardutenaren berri emateko.

Aurten, Debagoiengan, Goierrian, Azpeitian, Diman eta Ispazterren antolatuko dituzte erabakitzeko eskubi-dearen inguruko herri-kontsultak eta beste hainbat herri adierazi dute, dagoeneko, datorren urtean antolatuko dituztela. Herriko Gure esku dagoen antolaketa-taldea 2017ari begira dago, baina herritarrekin prestatu nahi dute bide osoa.

Anartz Mugikaren aplikazioa saritu dute

Anartz Mugika Ledoren *Servirace*: *korrikalariaren gida* aplikazioak bigarren saria eskuratu du Open Data Euskadi 2015 lehiaketan. Aplikazioak lasterketen inguruko webguneen informazio orokorra eskaintzen du; gainera, lasterketaren egunean eta iraungo duen orduetan egingo duen eguraldiaren berri ematen du, hitzordua agendan gordetzeko aukera ematen du, baita lasterketaren gaineko iritziak emateko zein ibilbidea kontsultatzeko ere. Nahi duenak aplikazioa deskargatzeko aukera du *Googleplayn*.



Salon, Pertsiana jaistera behartua



Salon janari-dendak ia 100 urte baino gehiago egin ditu zabalik Ariznabarreta eta Larrañagatarren familiaren eskutik.

Salon janari-dendak martxoaren 15ean jaitsi zuten pertsiana eta ez du berriro jaso. Kontsumo-ohitura berriek salmentetan eragindako jaitzierak eta dendako jarduna bestelako lan-jardunekin uztartzeko zailtasunek behartuta hartu dute denda ixteko erabakia.

Margarita Garmendiak (1949) urte mordoak egin du lanean familiaren dendan eta berak azaldu digunez "pena handiz" hartu dute denda ixteko erabakia: "Orain dela 40 urte bi langile egoten ziren dendan, herrian bizitza asko zegoen baina poliki-poliki herria husten joan da, gazteek merkataritza-gune handietan erosten dute eta denda txikien salmentek behera egin dute. Pena handia eman digu familiaren ogibidea izan dena lagatzeak, baina unean uneko aukerei begiratu beharra dago eta, azkenean, denda ixteko erabakia hartu behar izan dugu".

Bereizgarria: bertako produktuak

Garaian-garaiako eta bertako produktuak saltzeagatik nabarmendu da Salon. Aitzindariak izan ziren parafarmazia produktuak eta elikagai ekologikoak saltzen baina herriko baserrietako - Argate, Txu-

rrika-azpi, Agarre... - produktuak saldu izanak ekarri dio izen ona dendari.

la ehun urteko historia

Azkenengo hogeitau urteotan Lara Arrietak kudeatu du denda, Belen, bere amaren, laguntzarekin. Aurretik beste bi belaualdik ere lan egin zuten bertan. Lararen birramamak eta birraititak zabaldu zuten denda: Damiana Larrañagak (Untzeta baserriko alaba) eta Jesus Ariznabarretak (Salongo semea). Hain zuzen, hortik datorkio izena dendari.

Margaritak azaldu digunez, "aitita Jesussek gaseosa sifoiak eta izotza egiten zituen dendaren atzeko lokalean eta, ostean, astoarekin banatzen zituen herrian". Produktu guztiak pisura saltzen ei ziren orduan: babak, garia, arroza, olioak... Familiak dendan egiten zuten bizimodua: dendaren atzeko aldeko lokalean bazkaldu, ondoko lokalean -gaur egungo Gogortuz fisioterapia zentroa- pentsua, ikatza, olioak eta bestelako produktuak banatzen ziren eta goiko pisuetako etxebizitzetan, lo egiten zuten. Garai haietan, domeketan ere irekitzen ei zuten denda.




Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreformak • Era guztiak igeltseritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 649 867 289




Enkarguak egiten dira
Eramateko prestatzen da
Menu bereziak enkarguz

Berezitasunak:
Etxean egindako
pizzapatak eta
patata frijituak

Tel.: 943 25 74 52 / 680 75 40 60

BASOGINTZA

Bertako zuhaitzak boladan

Hamarkada luzez pinuaren aldera lerratu da basogintzaren balantza baina, gero eta gehiago direla bertako zuhaitzak sartzearen alde egiten dutenak. Joera horren inguruko informazioa jaso dugu erreportaje honetan.

ARGAZKIAK ETA TESTUA E. UNAMUNO

“Bota pagua ta sartu piñua” izan zen 50. hamarkadan lehenengo piñuak agertzen hasi zirenean baserri munduan ahoz-ahoz zabaldu zen kontsigna. Hazkunde azkarrekoa zela eta horri esker diru-iturri ona izan zitekeenaren mezua azkar zabaldu zen baserriaren artean; batzuk lehenago eta beste batzuk beranduago, gero eta lursail gehiagotan piñua sartzeari ekin zion jendeak.

Guenetxe baserriko Moises Arizagak gogoan du garai hura: “piñua gauza barri bat zan eta ikusi zanian ondo hazten zala, “bota pagua eta sartu piñua!”, garo-sail garbi-garbixak sartu ziran pinu, eta zelaixak be bai, gero. San Martzial aldian lehenengo eta gero beste aldian be bai”. Gainera, piñuarekiko sukarrak hark bat egin zuen baserriko bizimoduaren gainbeherarekin “baserriko jentia kalia lan egiten hasi zan jornala irabazten zalako. Basarrietarako kamiñuak egin ziranian be aldaketa haundixa etorri zan”. Horrek guztiak are gehiago indartu zuen piñua sartzeko joera.

Zuhaitzik zaharrenak, maiteenak

Mendiko paisaia aldaketa nabaria ekarri zuen piñuak “Garai baten esan izan baloskue Askabeitti sasixak hartuta ikusiko genduala, sinistu be ez genduan egingo. Zenbat jente juaten zan hara, iturri eta pagadira: mendizaliak, familixak, eskolako umiak eta...”. Ba ei ziren, handitasunagatik, jendea inguruan batzeko erakarpin indar berezia zuten zuhaitz zaharrak ere “argateko pagua famaua zan eta Uzkatteko artia be bai. Zenbat egonaldi egin ete ziran haren azpitan”.

Mentalitate aldaketa, bertako zuhaitzen alde

Mende erdiaren ostean, piñua sartzeari laga eta bertako zuhaitzak sartzan hasi dira Guenetxe lurretan “zikluak egoten dira. Pentsatzen zan piñua urria zala eta sasoi baten dirua emon zeban, baina hori amaittu zan. Gaur egunian, entresakia egiteko be norberak pagau bi-



Moises Arizaga mentatutako gereziondoari helduta.

“Garai baten esan izan baloskue Askabeitti sasixak hartuta ikusiko genduala...”

har dau eta lanerako jenterik ez dago”. Garbi dute: “gu ez goiaz berriro piñurik sartzera, zikiña dalako. Gainera, gaixotasuna dauka”. Lehenago piñua izandako

lursailtan pagoak, gaztainak, lizarrak, urkiak, arteak, sagarrak, gereziondoak... sartu dituzte.

Ezenarro anaien ametsa

Guenetxe hainbat mendisail Osintxuko Ezenarro anaiei saldu dizkiete.

BERTAKO ZUHAITZAK LANDATZEKO LAGUNTZAK

Gipuzkoako Aldundiak egindako gastuaren %90era arteko laguntzak ematen dizkie bertako zuhaitzak landatzera bideratutako egitasmoei. Gastuen barruan honako hauek hartzen dira aintzat: lursaila garbitzea, ixtea, landareak erostea eta sartzea. Bestalde, hazkunde azkarra duten kanpoko bariatateak sartzeko ere ematen dituzte laguntzak, neurri txikiagoan bada ere (%40tik %20 ra bitartean). Debabarreneko Nekazaritza Bulegoko Manuel Olariaga basozainak azaldu digunez, azken urteotan landatu diren bertako zuhaitzen kopuruak gora egin du.

ZUHAITZAK LEKU-IZENETAN

Bertako zuhaitzen izenek presentzia handia dute herriko leku-izenetan: *Sagarerreaka, Arteaga, Keixeta, Altzeta, Ametzurrunaga, Erripagadi, Mizpireta, Pagobakar, Pagobedeinkatu, Pagomakur, Bostarizti, Urriztizar, Aritzaga...*

Urkiazelai ere horiekin batera sailkatuko genuke, ez bagenekijatorrizko izena Urteaga zelai dela. Hala dago dokumentua 1588ko eskrituretan eta, oraindik ere, baserriar nagusienean “Urkiazelai” izendapena erabiltzen dute.

Iturria: Sorluzeko Toponimia. Jon Basauri.

Azken urteotan, Julian eta Martin Ezenarrok herriko hainbat lursail erosi dituzte, gehienak San Andres auzoan. Piñudiak botatako sailak dira gehienak, eta pottoka eta behorrendako bazka-leku modura egokitzen dituzte; dagoeneko, gora datozen arbolei hazten lagata. Martinen esanetan "betiko ametsa izan da lur batzuen jabe izatia eta mendixa garbi ikustia, bertako arbolekin. Piñurik ez dogu nahi ikusterik be". Jubilazioa hartuta, egunero buru-belarri dihardute mendia garbitzeko lanetan, San Andres auzoko beste baserriar batzuekin elkarlanean.

Gunerik aberatsenak

Herriko basorik aberatsenak identifikatu ditugu Roke Akizu nekazaritza ingeniariaren laguntzarekin. Besteak beste, honako hauek: Ezoziko erreken ingurukoak (baso mixtoa, pagadiak eta hariztiak), Mantxo-Iraola erreken ingurukoak (atlantiar baso mixtoa), mendigaineko pagadiak, Azkabeitiko pagadia (sinbolikoki garrantzi handikoa) eta Arizkotxo gaineko artadi txikia (bakantakoa herrian). Akizuren esanetan "mendia ez da metro kubikoen kontenedorea bakarrik, eta, hortaz jabetuta, gero eta joera handiagoa dago bertako zuhaitzak sartzeko. Kontrara, Bizkaiko eredia ikusi besterik ez dago bestelako politikek ze ondorio dakarten ikusteko".

AZALIAKO EGITASMOA: 220 FRUTA-ARBOLA



David Azaoleagako etxaburuan.

Azaoleaga baserrian fruta-arbolak sartzeko egitasmoa garatzen dihardute *Gaztenek* programaren laguntzarekin. Aurtengo neguan 220 landare sartu dituzte: sagarrak, madariak, gaztaina inokulatuak, intxaurrak, urrak... Horietatik 80 Euskal Herriko barietate zaharrak dira, *Hazisarea* ekimenaren bitartez eskuratu dituztenak. David Lindenmannek azaldu digu *Hazisarea* bioaniztasuna mantentzea helburu duen ekimena dela, "bertako barietateak jaso eta patentatzen ditu, ondoren, ekimenean parte hartzen duten bazkideen eskura jartzeko".

Dagoeneko, zuhaitzetako batzuk lorran daude eta epe laburrean (urtebete edo bi urte barru) uzta jasotzen hasia aurreikusten dute. Etorkezunean, sagardotarako sagar barietateak sartzeko asmoa dute; izan ere, Gipuzkoan, Aldundiak %100 laguntzen du landaketa-mota hori, sagardotarako sagarren ekoizpena bultzatzeko helburuarekin. Daviden ustez herriko lursailak oso aproposak dira sagardotarako sagarren ekoizpena bideratzeko eta sagarrondoak landatzea aholkatzen die gainerako baserriarrei.

Udalaren ekimenak bertako basoak bultzatzeko

Udalak hainbat ekimen abiatu ditu bertako zuhaitzak landatzea bultzatzeko. Batetik, jabetza pribatukoak diren mendigaineko zenbait lursail erosi ditu, guztira 70.000m² baino gehiago. Azkena Atxolinen erosi zuen iaz eta 400 pagolandare baino gehiago sartu dituzte aurtengo neguan. Izan ere, Udalaren asmoa da mendigaina publikoa izatea.

Bestalde, 2007an Soraluze Baso Bidez egitasmoa abiatu zuen Udalak. Lur-jabeekin hitzarmenak sinatzea proposatzen duen egitasmoa: udala arduratzen da lursaila garbitzeaz, landaketaz, ingurua hesitzeaz eta ondorengo 30 urtean mantentze-lanak egiteaz. Urteotan, 6 lur-jabek sinatu dute hitzarmena (guztira, 6 hektarea inguru).

Azkenik, udalak 15.000 euro inguru bideratuko ditu aurtengo ekimen horietarako; batez ere, garbiketa-lanak egiteko.



Ume eta gurasoak zuhaitz egunean.


Zuhaitz Eguna

Udalak eta mendi-taldeak antolatuta, martxoaren 19an, guraso eta umeek pagoak, haritzak eta lizarrak landatu zi-

tuzten *Zubero* esaten zaion lursailean, berrogei-bat guztira (lursail hori Urkiazelai baino goraxeago dago eta Ezenarro anaien jabetzakoa da).

Bertako zuhaitzen argazki-lehiaketa

Alkarrekinen Jasangarritasun-taldeak antolatuta, bertako zuhaitzek duten balioaz jabetzeko argazki-lehiaketa egin dute martxoan. Guztira 23 herritarrek hartu dute parte eta jasotako 63 argazkiekin erakusketa izan da ikusgai egunotan erakusketa-gelan. Lehiaketako sariak, berriz, honela banatu dira: 1. saria, Arkaitz Aranak eskuratu du *Hiru* argazkiarekin; 2.saria, Juan Joxe Agirrek eskuratu du *Pagoa* argazkiarekin; eta akzesita, Iñaki Aranburuk *Zuhaitzak* argazkiarekin.



Hiru (Arkaitz Arana).



Pagoa (Juan Joxe Agirre).



Zuhaitzak (Iñaki Aranburu).



Lehiaketako hiru sarituak.

Belarrak
Loradenda eta belardenda

Loreak, elikagai ekologiko eta osasungarriak, kosmetika eta etxea garbitzeko produktu ekologikoak

Ettxera eramateko zerbitzua Enkarguak egiten dira
Tel.: 943 75 30 11

TXURRUKA
JATETXEA

- Sukalde tradizionala
- Eguneko menua
- Asteburuetako menu berezia
- Karta

www.txurruka.com
Tel.: 943 75 15 81

sutarako egurra salgai
pago-egurra, haritz-egurra...

SUMA
basolanak

mug. 635 71 34 08

Motzear

Fernandezek boleibol-liga irabazi du

Jose Luis Fernandez soraluzetarrak Gaztela eta Leongo bigarren mailako boleibol-liga irabazi du Galdakaoko Bolei-taldearekin. Ligan jokatuak 14 partiduetatik 13 irabazi ditu Galdakaoko taldeak. Garaipen horrekin Espainiako Lehen Mailan aritzeko lehian jardungo dute, igoera-fasea jokatzeke txartela lortu dute-eta.



Alvarez hirugarren Boulder Ligan

Irene Alvarezek hirugarren postua lortu du 2016ko Boulder Ligan. Ligan, lau proba izan dira eta Irenek ezin izan zuen horietako batean parte hartu; ondorioz, zenbait puntu garrantzitsu ezin lortuta geratu zen. Lehiaketan, lehen postua eskuratu zuen Burgelen eta bigarrena Amurrian eta Donostian.

Ixa Rodriguez Euskadiko txapeldun

Ixa Rodriguezek hirugarren aldiz jarraian irabazi du 48 kilo azpiko Euskadiko boxeo-titulua, Getxon, Jessica Salazar boxeolariari irabazita. Hurrengo borrokaldia maiatzaren 15ean jokatu du Oñatin. Ekainean, aldiz, Portugalera joango da, eta, ostean, Espainiako txapelketa jokatu du Galizian.



Pelota txapelketaren XV. edizioa, berritua


Asier eta Iñakiren omenezko pelota txapelketaren XV. edizioa jokatu da aurten. Antolatzaile-taldea berritu dute eta horrekin batera hainbat aldaketa egingo dizkiote txapelketari; besteak beste, honako hau: aurten finala San Andresko jaietan jokatu da.

Antolatzaile-taldeak txapelketa berritu eta parte-hartzaile kopurua igotzea nahi du. Izan ere, txapelketaren lehen edizioetan 70 bikotek parte hartu zuten txapelketan: "Asier eta Iñaki oso ezagunak ziren herrian eta, lehen urteetan, gertutasuna eta berotasuna adierazteko-edo pertsona askok hartu zuen parte", baina azken urteotan parte hartzeak behera egin du, eta 2015ean 20 bikotek hartu zuten parte.

Berritasunak antolakuntzan eta funtzionamenduan

Antolakuntza-talde berria hainbat pelotazale gaztek osatzen dute: Oier Ariznabarretak, Iker Benitok, Iñigo Gonzalezek, Mikel Argarateg, Argoitx Ariznabarretak, Mikel Irisarrik eta Markel Arizagak. Txapelketa hobetzeko asmoz, antolakuntzakoek parte hartu izan duten pertsonen galdetu diete txapelketari buruz eta hobetzeko hainbat kontu identifikatu dituzte, honako hauek, besteak beste: lehiakortasun-mailak behera egin du, pelotak gogorregiak dira, komunikazioan arreta handiagoa jarri behar da... Horiek gogoan hartuta, pelotak kudeatu eta partiduei jarraipena egiteko arduradunak izendatu dituzte, pelota bigunagoak erosi dituzte eta domeketan barruak antolatuko dituzte, pelotak bigundu eta nahi duenak pelotan jokatzeke aukera izan dezan. Gainera, aurten finala San Andresko jaietan jokatzea erabaki dute, zentralitate gehiago lortu eta ostean talde-giroan jaiaz gozatu ahal izateko.

Komunikazioaren arloan ere ahalegin berezia egiteko asmoa dute, batez ere,



Oier Ariznabarreta, Argoitx Ariznabarreta, Koldo Heriz eta Iker Benito.


jende gaztearengana heltzeko. Sare sozialetan -WhatsApp, Facebook, Twitter-kontuak zabaldu dituzte eta Markel Arizagak mugikorerrako aplikazio bat egiten dihardu, bertan txapelketako informazioa jasotzeko. Plaentzia.eus webgunean bloga ere zabaldu dute txapelketaren nondik norakoen berri emateko.

Apirilaren 16an hasiko da

Txapelketa apirilaren 16an hasiko dela iragarri dute eta izen-ematea zabalik dago apirilaren 7ra bitartean. Parte-hartzaile guztiekin batzarra egingo dute apirilaren 8an, 19:00etan Gaztetxean. Bertan, zozketa egingo dute eta txapelketaren inguruko kontuez jardungo dute.

Aldarrikapena eta kirola uztartuta

Txapelketaren lehen edizioa 2002. urtean jokatu zen, Asier eta Iñakik istripua izan eta urtebetera. Aurretik, 2000. urtean, biek parte hartu zuten San Andresko lehenengo pelota txapelketa antolatzen. Harrezkero, txapelketa aldarrikapena eta kirola uztartu izan ditu eta etorkizunean ere bide beretik jarraitzeko asmoa adierazi dute: "duela 15 urte dispertsioaren aurkako mezua modu ludikoan zabaltzearen aldeko apustua egin zuten eta guk horri eutsiko diogu".



EDURTZA
taberna

Ogitartekoak, razioak, hanburgesak, pintxoak eta pizzak

Patata tortilak egiten dira enkarguz

Santa Ana 18
Tel. 943 75 13 83



MENDIZABAL
okindegia

Ogia · Prentsa Gosariak

Astelehenetik ostiralera:
08:00 - 13:15 eta 17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandeak:
08:00 - 13:15

Kalebarren 10 · Tel.: 943 75 13 99

IGO, euskarazko literaturaz gozatzeko



Maite Franko.

IGO (Irakurri, gozatu eta oparitu) egitasmoak euskarazko liburuak irakurri eta deskontuarekin (%35) oparitu ahal izateko aukera eskaintzen du. Apirilaren 1ean

hasi eta maiatzaren 31ra bitartean izango da parte hartzeko aukera, liburutegira joan eta gustuko liburua irakurri behar da lehenengo; ondoren, ekainaren 11ra arte erabili ahal izango dira deskontu-txekeak liburu-dendan, aukeratutako liburua erosi ahal izateko. Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzea da Pil-pileanek eta Udalak elkarlanean antolatu duten egitasmoaren helburua.

Umeendako ipuinak

Euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko kanpainarekin bat eginez, "Ipuinaren ordua" izeneko egitasmoa antolatu du Udaleko Kultura Sailak. Aurtengo zikloa 5 ipuin kontaketa saiok osatuko dute. Apirileko eta maiatzeko asteazkenetan eskainiko dira, bi astetik behin: apirilak 13an, "Isilka-misilka, Isiltasunaren Zaindaria" eta "Mundipurdiko ipuinak" Maite Frankok kontatuta eta apirilaren 27an "Beldurrentzako ipuinak" izango dira entzungai Maider Galartzaren eskutik.

Formatu txikiko antzerkia



Alex Rabanal.

Udaleko Kultura Sailak formatu txikiko antzerki-ikuskitzen erakustaldia antolatu du udaberrirako. Umorea, antzerkia, magia eta bakarriketak eskaintzen dituen proposamena da. "Ikuskizun eszeniko tradizioaletara joateko ohitura handirik ez duten ikusleei bideratutako barietate antzerkia da" Mikel Leunda kultura teknikariaren esanetan.

Hiru emanaldi izango dira: apirilaren 15ean, ostiralean, 22:15ean Alex Rabanalek monologoa eskainiko du; apirilaren 30ean, larunbatean, 18:00etan Badut taldearen "Zirriborro" klowne-ikuskitzuna emango dute eta maiatzaren 13an "Con un par" magia-ikuskitzuna egongo da gaueko 22:15ean.

Kolaborazioa



Olatz Sebal

Mantazpitik

MANTAZPITIK istorioak kontatzera etorri da. Istorio goxuak, neguan manta azpitan kontatzen diren horietakoak, udaberriko goizetan leihotik begira ikusten diren horietakoak. Mila koloretako istorioak dira, gu bezelakuak. Baina, batez be, moreak dira, gu bezela.

Mantazpitik Korner Morearen beso artistiko bezalajai da. Gure istorioek, gure ahotsek eta gure hatzamarrek borroka feministaren armaizatia nahi dabe. Ez dira hitz hutsalak, ez dITU haiziak erooten, kontzientziak mugitzeko sortuak izan dira-eta. Gure burua aske maite dogu, eta baita zuek danok be. Eta gure artian, behintzat, hola izango zarie.

Emanaldi bakarrerako sortu ginan, baina Gaztetxian egin genduan emanaldia eta gero, hainbat herrietatik deittu doskue martxuan zihar. Talde feministekin ta gaztetxietan egon gara, poesia musikatuko emanaldixak eskaintzen. Eibarko Nalua talde feministan aurkezpenian be egon ginan, ahizpen arteko harremanak sendotuz. Eta hurrengo hilabetietan be eskainiko doguz kontzertuak. Gonbidatuta zaozte.

Eskerrik asko bidaia honen hasieran gurekin egon zaretenoi, zuek barik hau ez baitzan posible izango. Harre-ra epela eduki dogu. Gure hurrengo emanaldixen berri ohiko bidietatik jakin ahal izango dozue: Facebooken, *Mantazpitik Blog & Roll*-en. Gehiago jakitzeko: kornermorea@gmail.com. Eta gogoratu: aske maite zaituztegu.

ION MURGIZU BAKAIKOA PINTOREA



arrunta
dekoraziokoa
industriala

Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30

TXURITXU GOZOTEGIA

Tel.: 943 75 24 43

Astelehenetik ostiralera:
09:00-13:00 eta 16:30-20:30
Larunbatak: 08:30-13:30 eta 17:30-20:30
Igandeak: 08:30-14:30

Gosariak, ogia, prensa, pastelak, bonboiak,
udaran terrazan kafea hartzeko aukera
paregabea, etxera eramateko zerbitzua



Zorion agurrak



Ioritz Aizpitarte
Apirilaren 2an, 33 urte.
Zorionak! Etxekoan partez.



Andoni Calles
Apirilaren 7an, 40 urte.
Zorionak! Etxekoan partez.




Maria Jesus Arrizabalaga
Apirilaren 17an, 71 urte.
Zorionak! Etxekoan partez.




Ekain Larrañaga
Apirilaren 21ean, 12 urte.
Zorionak! Etxekoan partez.




Oihan Larrañaga
Martxoaren 4an, 10 urte.
Zorionak! Etxekoan partez.




Aitor Agirre
Apirilaren 27an, 3 urte.
Zorionak! Etxekoan partez.



Jose Soba eta Mikel
Apirilak 11n 1. urteurrena.
Zorionak! Oso ondo pasatu
genuen zuen egun berezian.
Soraluzeko lagunaren partez.




Oskar Gil
Apirilaren 14an 40 urte.
Ardo ona bezala...
Asko gura zaitugu.
Familia guztiaren partez.



Alex Ros
Apirilaren 25ean 40 urte.
Zorionak guapeton!
Muxu handi bat.
Familia guztiaren partez.



Oier Cid Benayas
Martxoaren 23an, 6 urte.
Zorionak mutil handi! Segi
horrela! Muxu erraldoi bat
etxekoan eta lbonen partez.



Ibai Rodriguez Larrañaga
Martxoaren 11an, 12 urte.
Zorionak txapeldun!!!!!! Ondo
pasau zure egunian. Muxu
handi bat etxekoan partetik!




Iraultza Ostolaza Lakuesta
Martxoaren 20an, 13 urte.
Zorionak politxori! Inffinitoraino
maitxe zaitxugu! Patxuak Sugar,
Aetz eta etxekoan partez.



Peio Etxeberria Lete
Martxoaren 20an, 61 urte.
Zorionak etxekoan partez!!!



June Eguren
Maiatzaren 3an, 13 urte.
Aupa neska! Zorionak! Guraso,
aittitta eta amamaren partez.



Adur Odriozola Rolo
Martxoaren 1ean 14 urte
Muxutuak! Amaren
partez!



Iraultza Diez Rascon
Martxoaren 25ean, 9 urte.
Zorionak printzesa! Etxekoan
partez muxu handi bat.



Amuitz Perez Lizarralde
2016ko martxoaren 17an,
8 urte. Zorionak!! Etxeko
guztien partetik.



Amets Alberdi
Apirilaren 12an, 7 urte.
Zorionak bitxito! Pila bat maitxe
zaitxugu! Etxekoan partez.



Naroa Zubiaurre eta Aratz Azkorbebeitia
Martxoaren 4an, 10 urte; martxoaren 11n, 3 urte.
Zorionak bikote!!! Muxu potolo bat etxeko danon
partez!!!



Raja Nasir
Martxoaren 1ean, 47 urte.
Zorionak eta eskerrik asko!
Plazerra da ez zagutu izana
eta zure irakaspenak jasotzea.
Ingeles mintzapraktikako
ikasleak.

Urte askotarako!

Zoriondu lagunak eta senitartekoak Pil-pileanen:

- Whatsapp **605706086** zenbakira.
- Mezua **aldizkaria@pilpilean.com** helbidera.
- Webguneko **www.plaentzia.eus/zerbitzuak/zorion-agurrak** helbidean sartu.
- Lokalera ekarri: 10.30etik 13.00etara bitartean.

Jaiotakoak eta hildakoak



Markel Aurrecochea Picado




Pilar Blanco Mojon
Maria Ines Revuelta Azcarate
Jose Antonio Begil Facundo



LUIS CASARES PRADO
1996ko MARTXOAK 24
20. URTEURRENA

*"Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin
oroimenean izango zara zu beti gurekin."*

Etxekoak



ba al zenekien...

Soraluze mapamundi batean agertu zela?

Inprenta erabiliz atlasak egiten hasi zirenean, Soraluze haietako batzuetan kokatu zuten; armagintzagatik ospea lortu ahala, gero eta mapa handiagoetan agertzen hasi zen. Hala, XVIII. mendean Europako hiru mapatan eta mapamundi batean (Portugaleko Mafra monastegiko liburutegian erakusgai dagoen batean) azaldu zen. Irudiko mapa Bizkaia eta Gipuzkoari dagokio eta gure herriaren izena ia Bilbo beste handi ageri da, Gipuzkoako herrien artean handien.



JOSE ANTONIO BEGIL FACUNDO
MARTXOAREN 6AN HIL ZEN 89
URTE ZITUELA

*"Bazara, gugan zaitugulako
Bazara, handia zinelako
eta, batez ore, bagara, zu
ezagutzeko beta izan dugulako!
Harrotasunez, maite zaitugu
aitxitra!"*

Etxekoak

ESKELAK JARTZEKO:
605 706 086

Hilaren azken barixakuan argitaratuko da aldizkarian.

Eskelaren prezioa:

30 € (txikia)

60 € (luzea)



MIGUEL ANGEL HERAS LLANES
MARTXOAREN 1EAN HIL ZEN TOLOSAN, 53
URTE ZITUELA

"Jio, asko maite zaitut. Zu joatea oso gogorra izan da neretzat. Zure irripar eta maitasunarekin geratzen naiz, beti izango zara nere bihotzean eta maite izan zaituzten guztionetan. Agur bero bat. Maite zaitut."

Imanol Heras Crespo, Carmen Llanes, Maika Mujika eta Nora.

KLB6

Kalebarren 6
943 57 74 26

Mutilen eta nesken
moda gaztea

KLB6
edo
Sara Jantziendia

AURREZTU ENERGIA

**Berotu etxea
BIOMASA ETA
EGURREZKO
galdarekin**

fontaneria
San Andres
iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com



Murritzte kanpaina

Poltsa berrerabilgarria edo tupperra erabiltzen dutenen artean hileroko 25€ko bi erosketa sari zozketatuko dira



SORALUZEROKO UDALA



Irabazleak:



Maria Pilar Olano



Martines Plazaola



OROIORE Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

- Zerbitzu etengabea 24 ordutan
- Ez onartu besterik gabe zure asegu-konpainiak esaten dizun hileta zerbitzua, jakin ezazu nahi duzun hileta zerbitzua aukera dezakezula beti.
- Guztiarekin arduratzen gara: eskelak, lorak, errausketak, hilobiratzeak, bellatokia, tramitazioak etab.

617442155 zenbakira deitu eta berehala jarriko naiz zurekin harremanetan

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin eta nire helburua familiari ahalik eta tratunik beroena hurbilekoena ematea izango da.

ESKELA DOAN
PIL-PILEAN HERRI ALDIZKARIAN

BERGARAN, Amilaga 27an

maribi • 617442155 • maribi@oroiores.com

ZORIONAK SABIN!

Apirilaren 11n, 37 urte

9:00etan

MENDI BUELTA

(Gaztetxetik irtenda)

14:30etan

BAZKARIXA GAZTETXIAN

Sorpresa pila batekin!

Apuntatu Gaztetxian

APRILAREN 10ian
SORALUZEROKO
GAZTETXIAN



SABIN ASKATU, ESPETXEAK APURTU!

SABINEN LAGUN TALDEA



DES KON TUAK

Bizikale elkarteko komertzioek deskontuak eta eskaintza bereziak eskaintzen dituzte hilerro. Eskaintza baliagarria **apirilaren 1etik 16ra** arte.

IRATXO GOZODENDA

Goxoki sorta



1,5€

Lehen
2,1€

Deskontua
%29

Izena: _____

Tel.: _____

MARIMAR HARATEGIA

Txahal azpizuna



Deskontua **%25**

Izena: _____

Tel.: _____

ARMENDI JATETXEA

Salda, hirugiharra, txistorra eta arrautza



8€

Lehen
9,5€

Deskontua
%16

Izena: _____

Tel.: _____

BOLIA TABERNA

Kafesnea eta magdalena / Kañoia



Kafesnea 1,8€

Lehen
2,1€

Deskontua
%15

Kañoia 2€

Lehen
2,2€

Deskontua
%10

Izena: _____

Tel.: _____

zozketa

60 euroko bono bat zozketatuko da hilerro. Parte hartzeko, eskaintzaren bat kontsumitu behar da eta norbere datuekin betetako fitxa entregatu.

Azken zozketaren irabazlea: Lori Caballero



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN ETA
LEHIAKETAZAIN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD